

2005eko ABERRI EGUNEAN

Aberri Eguna dela eta, Batzorde Nazionalak ELAren konpromiso abertzalea berresten du, hots, Euskal Herria subjektu politiko oso izateko eta bere garapen sozial, ekonomiko eta kulturala lortzeko aldarrikapenari eusten dio; aldarrikapen hori estatu espainolak eta frantsesak ukatu egiten dute.

ELArentzat autodeterminazio eskubidearen lorpena –“Euskal Herriaren etorkizuna nolakoa izango den euskal herritarrek beren hitzaren bitartez adierazi behar dute” (Lizarra-Garaziko adierazpena)– da egungo nazio-eraikuntza aroa-ren helburu politiko nagusia eta euskal gatazka politikoaren gakoa. Gaur gako politiko hau ageri-agerian geratzea eta erabakitze eskubidearen kontzientzia nahiz eskubide hori gauzatzeko borondatea euskal herritarren artean hedatu izana autodeterminazio eskubidearen aldeko indar guztien arrakasta bat da.

ELAren iritziz, esparru politikoan lortutako zehaztasuna eta gizartearen kontzientzia zabaltzearekin batera, indar autodeterministek ez dituzte herritarrek aintzat hartzeko moduko proposamen bateratuak landu. EAerako estatutu berriaren proiektuaren alde bateko kudeaketa dugu horren adibide bat.

Egoera honetan badirudi nork bere esparrua finkatu eta hedatzea dela –baita hauteskunde garaitik haratago ere– gune subiranistako indar politiko nagusien erabateko lehentasuna. Egoera honek gai

politikoetan izan litekeen lankidetzan unean-uneko gai jakinetara mugatzen du; aliantza sakonagoak oso mugatuta geratzen dira, autonomia funtsezko balio eta ezaugarritzat hartu dituen ELAren moduko erakunde batentzat bederen.

Aski ezaguna da ELAk zer irizten dion ETAk urte askotan eraman izan duen borroka armatuaren estrategiari. Gure sindikatuak, euskal gizartearen gehiengo handiak bezala, epealdi hori lehenbailehen amai dadila espero du. ELAk ziklo armatua amaitutzat emateko ezinbesteko erabakia luzamendurik gabe hartzea animatu nahi du, eta bere XI. Kongresuko ebazpenetako batek dioen legez, instituzioei eta indar politiko nahiz sozialei dei egiten die beste ziklo politiko baterako trantsizioa erraztu, elkarrizketa eta distentsioa ekarri eta urteetako gatazka-oren ondorio pertsonalak eta sozialak leuntzen saia daitezen; ELAk hitz ematen du egiteko honetan bere ahaleginak jarriko dituela.

Aurtengo Aberri Egunaren inguruan Rodriguez Zapateroren gobernuak urtebete egin du boterean; ELArentzat euskal auziaren inguruko kudeaketa oso eskasa egin du. Gobernu berriarekin ere funtsezko eskubide eta askatasunak urratu egiten dira; alderdien legeak indarrean dirau eta legitimitate demokratiko osoa duten hautes-zerrenden aurka jotzen dute; legez kanpoko espetxe politika ankerrari eusten zaio; tortura babestu egiten da, eta hasitako auzien ondorioz

espetxe zigor latzak jasotzeko arriskutan dago gizarte-mugimenduetan, kulturean edota komunikazioan lan egindako hainbat jende.

ELAko Batzorde Nazionalak iazko Aberri Egunez hautatu berria zen gobernuburu espainolari luzatu zion dei bera egin behar dio berriro ere: parte hartze politikorako eskubidea edo adierazpen askatasunaren moduko funtsezko eskubideak gauzatu ahal izateko baldintzak berrezar ditzala, eta distentsiorako mesedegarri izango diren erabakiak har ditzala espetxe-politikan edota ministerio publikoaren jardueran.

Egia da Rodriguez Zapaterok euskal auziari buruz hitz egiteko erabiltzen duen doinuak zerikusi gutxi duela Aznarren hizkera zakar eta erasokorrekarekin. Areago, egungo Espainiako gobernuburuak bere hitzaldietan 'kontsulta' eta 'euskal herriaren borondatearekiko errespetua' bezalako esamoldeak aipatu ditu. ELAren irudiko, halere, adierazpen hauek –hain zuzen gizar-tean zenbateraino errotuta dauden islatzen dutenak– Legebiltzarrerako hauteskunde-entzuten hurbiltasuna medio ulertu behar dira.

Izan ere, egitateak eta hitzak ez datoz bat: PSOEk erabateko ezetzarekin erantzun dio Legebiltzarrak demokratikoki onartutako estatutu berriaren proiektua aintzat hartzeari ere; gero eta UPNren antza handiagoa duen PSNren inboluzioa, edota PSE-EEK Espainiakoa ez den beste errealitate nazionalik onartzeko ezintasuna. Zapateroren egitasmo politikoan estatua da subjektu politiko oso bakarra, eta bere institu-

zioen esku geratuko da euskal gizarteak bere borondatea noiz, zein baldintzatan, zeri buruz eta zein mugarekin adieraziko ote duen; betiere, estatua beretzat gordezten du azken hitza.

Beraz, jarrera horrek ELAren aburuz gaur egun Espainiako Gobernuarekin irits litezkeen –eta beste arrazoi batzuren ondorioz ezinbestekoak diren– akordio politiko-entzuten norainokoa mugatu egiten du.

Batzorde Nazionalak berriro gogoratu nahi du ELAren jarrera: sindikatua autode-terminazio eskubidea aldeztu duten indar-entzuten arteko gutxieneko akordio baten alde dago. ELAren iritziz, soilik horrelako hitzarmen batek irekiko luke herri garen aldetik zor zaizkigun eskubideen aitortzea lortze aldera beharrezkoa den indar politiko eta soziala metatzeko aukera.

Azkenik, Aberri Egunez ELAko Batzorde Nazionalak sindikatuko afiliatuak animatu egin nahi ditu, Euskal Herria esparru guztietan garatzeko konpromiso militantea hartzen. Eta gogoratu nahi du nazio-erai-entzutenarako egin dezakegun ekarpen nagusia lan- eta bizi-baldintza hobekien lortzeko borroka sindikala dugula. Nazio-erai-entzuten erarik hoberena Euskal Herri justuago eta solidarioago baten aldeko borroka baita.

2005eko martxoan

GORA EUSKAL HERRIA ASKATUA!